

Aitzindariari gorazarre



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
barren.eus webgunean

 **943 743 704**

 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.
20870 ELGOIBAR

*Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.*



EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BOSCH KGN36VWED

A T G D

599 €

- Ez Frost
- 326 litro
- 186zm-ko altuera
- LED argiztapena
- Vita Fresch kaxoiak
- Easy ACCES erretiluak
- Hozte handiko gaitasuna



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Osasun gida.....


RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

Jeku edero
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 687 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/19

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850


RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



twitter.com/barreneus



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Izaro Etxegibel Soraluze

Euskara teknikaria

Non?



**"Bista-bistan ez badago,
ez dute ikusten"**

Zenbat aldiz galdetu dizute zuri, ama, non dagoen honako edo halako?

- Non dago? Ez dago

- Nola ezetz? Nik joan behar al dut?

... Non hago, zer larretan Urepeleko artzaina...

Ez, oraingoa ez nator ekartzera horrenbeste gustatzen zaizkidan aipu, poema, ez eta inoren hitzik. Ez, sarri galdetzen diguten *Non?* horri buruz nabil. Gertaera ohikoa edonoren etxean, esango nuke.

Non dago? Seme-alabek amari. *Halako lekutan,* amak. *Ez, ez dago,* erantzuna berriro. *Nik joan behar al dut?* Amak. Eta lehenengo saiakeran topatu amak besteek aurkitu ez dutena. Bista-bistan ez badago, ez dute ikusten. *Begiak erabiltzeaz gain, zertarako daude eskuak, bada?* amak behin eta berriz. *Agerian ez badago, eskuak erabili lehenengo lekuan dagoena mugitu eta azpian begiratzeko. Horren zaila al da?*

Beti pentsatu izan dut antzeko zerbait gertatzen zaigula oporretan, edozein hiritako erdigunera edo "intereseko" lekuetara soilik joaten garenean. Jende andana monumentuak, katedralak eta derrigor ezagutu beharreko horiek ikusten. Zein zirrargarria den, baina, turismo gidek erakusten ez dituzten txokoak deskubritzea, apur bat urrundu eta jendez hutsik dauden lekuak aurkitzea.

Venezian izan zen duela urte asko. Taldetik alde egin genuen lagunak eta biok, Muranoko kristalezko goxokiak erosi nahi genituen eta, denda baten bila. Inor ez zegoen txoko batetara iritsi ginen, noraezean, maparik gabe gindoazela. Zubi baten ondoan geunden, bakarrik. Bertan izan nuen estreinakoz sentipen hura: txoko ixil hartan sentitu genuen Venezia, *Piazza San Marcon* beste edo are sakonago. *Non?* galdetzean atzematen ez den Venezia, lehenengo begiratuan ikusten ez dena.

Pertsonekin ere gertatzen zaigu. Areago joan gaitezen, bada, eta gainean edo aurrean dagoena kendu eta barneragokoa ikus dezagun. Zergatik agerikoarekin geratu?

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Debemen Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu Trinitateetako azoka antolatzen lagundu ziguten guztiei. Batez ere, egunean bertan sagardo dastaketa antolatu zutenei, eta sagardoa banatzen eta bazkaria zerbitzatzeko jardun ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei. Eta nola ez, gure eskerrik beroenak Armueta Harategiko Angeli eta haren etxekoei, emandako erraztasun eta laguntza guztiagatik.

Debemen

Egurrezko ontzietan ondutako sagardoan Euskal Herriko txapelketan parte hartu nahi?

Txapelketa polit baten berri eman nahi dizuet, Elgoibarren dugun sagardo zaletasuna aprobetxatuz: egurrezko ontzietan ondutako sagardoan Euskal Herriko seigarren txapelketa. Alkartasuna Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak antolatzen du eta Usurbilgo Udalak, Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak eta Euskal Sagardoak lagunduko dute ekimena. Parte hartzeko epea gaur amaitzen da, baina lasai, 19:00ak arte aukera dago eta. Euskal Herriko edozein sagardogilek parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala etxerako egiten duenak ere.

Zer egin behar da? 8 sagardo botila eraman beharko ditu sagardogile bakoitzak, denak kalitate

berekoak, Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibara eraman behar dira.

Hiru sari izango dira jokoan: 1.000 euroko Herriko Etxea Saria, 450 euroko bigarren saria eta 100 euroko hirugarren sari bat. Garrantzitsua izango da saria jasotzeko ulean eskuratzen duen sagardogilea bertan izatea, bestela, hurrengoari emango diote. Maider Larrañaga sommelierra (Arteaga, Arrasate), Dani Corman (Basque Culinary Center, Donostia) eta Irati Amondarain enologoa (Andoain) arituko dira epaile lanetan. Txapelketa ekainaren 9an (domeka) egingo da Aginagako Eliza Zaharrean (Usurbil), 10:00etan hasita. Informazio gehiago eskuratzeko eta txapelketaren oinarriak irakurtzeko: sagardoa@ni.eus, alkartasuna.eus eta 630 938 027.

Sagardotxo maitea, edari paregabea, argitu ezazu mundua arinduz burua. Animatu zaitzete!

A.I.

Eskutitzei buruzko araudia

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.

2. 1.200 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak (espazioak barne).

3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuak dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako.

Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta bada.

5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...

6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Herri honetako espazio publikoa norentzat izan behar da?:

Herritar batek ondorengo hausnarketa partekatu nahi izan du atal honetan: "Elgoibarko espazio publikoa nola banatuko zenukete? Denbora tarte laburrean bi aldiz ikusi dugu hutsik Aita Agirre plaza, Itzulia-Women ekitaldiagatik eta Trinitate jaiengatik. Ostegun arratsaldetik hustu zuten joan zen astebururako eta niretzako ederra izan zen plaza umez beteta ikustea. Batzuk xibarekin ibili ziren etengabe, baloiarekin besteak, harrapaketan... Umeak jolasean azken batean, kalean, pantailarik gabe, elkarrekin harremantzen... Jende askok komentatu genuen Elgoibarren ez dagoela umeen aisialdirako gune askorik, eta Aita Agirre autorik gabeko gunea izan beharko litzatekeela. Aisialdi eta gozamenerako gune bihurtuta, herriak asko irabaziko luke. 30 bat auto sartzen dira Aita Agirren, ez da horrenbeste ere. Aparkaleku horrek ez du herri honek daukan aparkatzeko arazoa konpontzen, eta aldiz, bertatik autoak kenduz gero, herritarrek bizi-kalitatea irabaziko lukete. Udalak gai honen inguruan hausnartu beharko luke. Beste herri eta hiri askotan hasi dira orain arte autoei emandako espazioa oinezkoentzako berreskuratzen, eta Elgoibarrek ere behar du hausnarketa hori egitea".



Txalo bat Musika Eskolari, 40 urteotan egiten diharduen lanagatik:

"Zorionak Inazio Bereziartua Musika Eskolari, 40 urteotan egindako lanagatik. Ume eta irakasle gutxi batzuekin hasi zineten, baina gaur egun osasuntsu dago musika eskola, eta hori poztekoa da. Elgoibar punta-puntako herria da musikagintzan. Oso herri aberatsa dugu musika arloan, eta hori hein handi batean musika eskolak egiten duen lanaren emaitza da. Sekulako musikariak ditugu herrian, musika talde pila bat sortu dira azkenaldian, eta kalitateko musika egiten dute guztiek, bakoitzak bere estiloan. Elgoibarko musikazaleak zorionekoak gara, musikaz gozatzeko hamaika ekitaldi izaten ditugulako urtean zehar, eta denak onak. Joan zen asteko Musika Gaua ere ederra izan zen, eta baita umeen danborrada ere. Ondo merezitako aitortza jaso zuten musika eskolaren sortzaileek. Segi horrela, herri hau musikaz janzten".



Emakume migranteak alfabetatzeko eta ahalduntzeko bidea egin nahi du Udalak



Zabaltzen Sartu sozietate kooperatiboarekin lankidetzan, emakume migratuak alfabetatzeko eta ahalduntzeko proiektua sustatuko du Elgoibarko Udalak Harrera Planaren barruan, 7.500 euroekin. Emakume migranteek hainbat trabari egin behar izaten diote aurre, hala nola, gaztelania ez menperatzeak sortzen dizkien komunikazio arazoei, ikasketa mugatuak izateari lotutakoei, indarkeria matxistari..., eta bidea arintzeko bidea eman nahi diete.

"Programak gune segurua eta lagungarria izan nahi du, haien beharrei kulturarteko eta genero ikuspegitik erantzuteko", adierazi dute Udaletik. Maialen Gurrutxaga alkateak eta Pili Iranzo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak bisita egin zuten Zabaltzen Sartu zentroran, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek batera, eta han, hainbat emakume migranterekin aritu ziren berbetan. Bisita haren ostean, emakume haiek eta oztopoak gainditzeko erakutsi duten gaitasuna eta erresilientzia nabarmendu zituen Maialen Gurrutxaga alkateak eta esan zuen "inspirazio iturri" direla. Eta gehitu zuen: "Lanean jarraituko dugu Elgoibar guztiontzako harrera eta hazkunde lekua izan dadin, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago bat eraikitzeko konpromisoa berretsiz".

Etxeko energia kontsumoaren diagnostikoa egiteko laguntza eskaintzen du Debegesak

Energia Argituz izeneko kanpainaren bidez, etxebizitzetako energia kontsumoa zenbatekoa den neurtzeko ikastaroak eta gailuz betetako maletatxoak eskaintzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta ekimen horretan oinarrituta, norbere etxeko energia kontsumoa zenbatekoa den jakiteko galdetegi sinplifikatuak sortu ditu Debegesak. Diagnostikoa norbere kasa egiteko aukera ematen dute gailu eta galdetegiok. Galdetegi sinple bat da Debegesak sortutakoa, eta etxeko energia kontsumoa neurtzeko balio du. Hein berean, efizientzia energetikoa hobetzeko eta faktura elektrikoaren kostua murrizteko gomendioak ere ematen ditu.

Bi galdetegi mota daude: normala eta gailuekin hornitutakoa. Bigarrenean sei gailu eskaintzen dituzte, etxean neurketak egiteko: aire-ihesen detekttagailua, termometroa eta higrometroa, erradiadoreen purgagailua, entxuferako elektrizitatea, kontsumoaren neurgailua, hozkailurako termometroa, eta uraren emaria neurtzeko kronometroa. Debegesatik jakinarazi dute erremintok erabiltzeko ez dela ezagutza teknikorik izan behar. Gailuen maleta Debegesaren bulegoan jaso behar da, maileguan, hamalau egunerako, berme moduan 30 euro ordainduta.

EH Bilduk hauteskunde kanpainako ekitaldia egingo du gaur, Maalan


Europako hauteskundeetarako kanpainako ekitaldia egingo du gaur EH Bilduk, Elgoibarren, Maalako parkean. Xabi Luke Astigarraga (Eibar, 33 urte) herri lanetako ingeniaria eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko Olatukoop sareko kidea eta Nerea Kortajarena Ibañez (Donostia, 1974) EH Bilduko legebiltzarkidea izango dira gonbidatuak. 19:00etan hasiko dute ekitaldia.

29 herrialdetako 1.500 enpresa baino gehiago batuko ditu BIEHM azokak aurten

Hogeita bederatzi herrialdetako 1.500 enpresa baino gehiagok parte hartuko dute ekainaren 3tik 7ra Bilbao Exhibition Centren egingo den makina-erremintaren BIEHM nazioarteko azokan, eta 3.500 produktu eta zerbitzutik gora erakutsiko dituzte. Martitzenean aurkeztu zuten azoka Xabier Basañez BECeKO zuzendari nagusiak, Xabier Ortueta AFM Clusterreko zuzendari nagusiak, Jose Ignacio Ortiz de Urbina AIMHEko presidentek, Jose Perez Berdud AFM Clusterreko presidentek eta eta Mari Carmen Gorostiza makina erremintaren nazioarteko biurtekoaren arduradunak.

Azokak arlo hauetako enpresak bilduko ditu: erauzketako eta deformazioko makinak, fabrikazioa eta banaketa (%35), robotika eta automatizazioa (%20), erremintak eta osagarriak (%12), industriara aplikatuko digitalizazioa (%9), osagai mekanikoak (%9), produkzioarako eta enpresarako zerbitzuak (%6), fabrikazio aditiboak eta 3Da (%5). Eta berrikuntza gisa, aurten, robotika, automatizazio eta digitaliziorako gune berezi bat ere egongo da, baita Demo Robot gunea ere, eta enpresa liderrek robot kartesiarrak, artikulatuak, industrialak, kobotak, autonomoak eta AMRak erakutsiko dituzte.

Antolatzaileen esanetan, aurtengo azokaren datuek sektorearen errealitatea islatzen dute. 2022ko zifrekin konparatuz, hazkundea %22,6koa izan dute fabrikazio-teknologia aurreratuek eta makina-erremintak, "marka



historiko bat". Produkzio-bitartekoen inbertsioari dagokionez, berriz, urtea "oztopoz beterik" egon da, "bereziki ziurgabetasunagatik eta zailtasunengatik". Hala eta guztiz ere, azken bi urteotan eskaerak pilatu direnez gero, sektorearen fakturazioa handitzen joan da, eta 2.157,3 milioi eurora iritsi da.

Askotariko sektore eta jardueretan (automozioa, aeronautika, aeroespaziala, trenbidea, energia, siderurgia eta ekipamendu-ondasunak, besteak beste) diharduten hainbat trakzio-enpresa garrantzitsuk BIEMHeKO enprekin bilerak lotzeko eta inbertsioak handitzeko interesa berretsi dute eta bultzada horri esker, 75 herrialdetatik datozen eta pisu handikoak diren bisitari profesionalak eman dute izena: AEB, Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua, Portugal, Turkia, Kanada, India, Txina eta Mexikokoak.



'Burmuinak martxan' egitasmoan parte hartu dute Herri Eskolako ikasleek

Burmuinak martxan egitasmoaren baitan ingeniari-tza ikasleekin batera garatu duten proiektu zientifiko teknologikoa aurkeztu dute Herri Eskolako LH6ko ikasleek Berritzegune Nagusiak Leioako campusean antolatutako *Berrikuntza hauspotzeko praktika inspiratzaileak* jardunaldietan. Zehazki, edatekoa ez den ura edateko ur bihurtzen duen makina diseinatzeko eta maketatzeko erronka azaldu dute.

Eduardo Txillidaren 100. urteurrenari lekua egin diote Erreminta Makinaren Museoan

Eduardo Txillida eskulturgilea jaio zela 100 urte bete ziren urtarrilean, eta hura gogoratzeko, hiru urteko ekitaldi-programa prestatu dute haren senideek. Ekitaldien barruan, lekua egin diote Txillidari Elgoibarko Erreminta Makinaren museoan, eta eguaztenean aurkeztu zuten Txillidari eskainitako panela. Mikel Txillida artistaren bilobak eman zituen aitonari buruzko azalpenak, eta bereziki, burdinarekin izan zuen harremanari buruz mintzatu zen. Txillidak Greziako artea zuen gustuko bere hastapenetan, eta igeltsua erabiliz egin zituen hasierako artelanak. Parisen bizitzen egon zen, eta handik itzultzean bere artea agortuta zegoen irudipena izan zuen; bera egiten ari zena aurrez ere egina zegoela alegia. Pili Belzunce emazteak eman zion une hartan aurrera segitzeko bultzada, eta bilobak amonaren papera ere nabarmendu zuen aurkezpen ekitaldian, aitonaren ibilbide artistikoan garrantzi handia izan zuelako. Hernanin jarri ziren bizitzen, Manuel Illarramendi errementariaren lantegi aurrean, eta han



deskubritu zuen Txillidak burdina. Larramendik egunez egiten zuen lan sutegian, eta Txillidak gauzez sortzen zituen bere artelanak. Orduetik, beste material batzuk erabili zituen arren, ez zen inoiz burdinetik apartatu.

Makina erremintaren museoa toki "liluragarria" iruditu zitzaion Mikel Txillidari, eta bertan sartzeaz bat esan zuen aitona ikusten zuela bertan lanean. Lanabesak arte bilakatu zituen Txillidak.

Herri barruko autobusa Sigmara, Santa Klarara, Altzolara eta Mintxetara ere helduko da

Elgoibarko Udala herri barruko autobus zerbitzuaren ibilbidea zabaltzeko lanean ari da, eta gehiengo deifinitua duela azaldu du. Gaur egungo geltokiez gain, beraz, Sigman, Altzolan, Santa Klaran eta Mintxetan ere egingo ditu geldialdiak. Orduetgia ere aztertzen ari dira, auzo horietako bizilagunak erdigunera gerturatzean trena hartzeko aukera izan dezaten.

15 minutuko TAO sistema

Elgoibarko Udala aparkaleku arautuaren ordenantza aldatzeko lanean ari da, eta horren barruan 15 minutuko TAO sistema ezarriko du Maala inguruan. Txarridunako biribildunearren inguruan eta Toletxe kale hasierako ezkerreko aldean 15 minutuz aparkatzeko aukera egongo da, tiketa jarrita. Erabaki honekin bigarren ilaran aparkatzen duten auto kopurua gutxitu nahi dute.





LANBIDE HEZIKETARA HURBILTZEKO KANPALDIA

✍️ Ainhoa Andonegi / 📺 IMH

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitzerako, etorkizunean zer izan nahi luketen pentsatu behar izaten dute ikasleek, zer ikasten jarraitu alegia. Aukera desberdinak izaten dituzte une horretan, nagusienak bi: Batxilergoa egin, ondoren unibertsitaterako bidea hartzeko edo Lanbide Heziketarako eman izena, erdi mailako ikasketak egiteko. Eta IMHk Kanpaldi Tecnologikoa antolatu du aurten estreinakoz, DBHko ikasleei Lanbide Heziketa aurkezteko.

Erabakiak hartzean datza bizitza, eta ikasleei ere iristen zaie etorkizunerako erabakiak hartzeko unea. DBH amaieran hartu behar izaten da lehenengo erabaki nagusia, 16 urterekin: Batxilergoa egin ala Lanbide Heziketarako bidea hartu?. Erabaki horrek ezarriko du ikasle bakoitzaren etorkizunerako oinarria, eta erabaki garrantzitsua izaten da. Ikasle askok argi izaten dute bidea, baina zalantzan egoten dira beste asko, eta egoera horretan ikastetxearen eta orientatzailearen laguntza ezinbestekoa izaten da. Egoera horretan dauden ikasleei bidea argitzeko

asmoz, Kanpaldi Tecnologikoak antolatu ditu aurten estreinakoz IMHk.

Eli Moreno psikologoa da IMHko Goi Mailako orientatzailea, eta bera izan da Kanpaldi Tecnologikoaren arduraduna. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatu dute programa, DBHko ikasleei etorkizunerako argibideak emateko asmoz. Elgoibar Ikastolak eta Soraluzeko Institutuak hartu dute parte egitasmoan, eta Elgoibar BH Institutuko ikasle bat ere joan da bere kabuz. 15 ikasle izan dira guztira, DBH3koak, DBH4koak eta Batxilergoko bat. Astebete iraun du kanpaldi teknologikoak,



Nuria Vazquez, mentore lanetan IMHko tailerrear.

eta astebete horretan DBHko ikasleek ikastetxeko lanak laga eta IMHn jardun dira, Lanbide Heziketa bertatik bertara ezagutzen. "Iruditu zitzaigun egiten ikastea izango zela onena, ikastetxean bertan murgildu eta Lanbide Heziketako alor guztiak erakutsi dizkiegu", azaldu du Eli Morenok. Irakaste prozesua bera ere berezia izan da, eta IMHko Lanbide Heziketako ikasleak izan dira aste horretan irakasle. "Parekideekin egindako programek erantzun hobea dutela uste dugu, eta horrela gure ikasleei ere esperientzia berri bat eskaini diegu, zeharkako kompetentziak lantzeko eta ahalduzko aukera emanez".

15 bat ikasle aritu dira irakasle paperean, eta Nuria Vazquez algoibartarra izan da mentore horietako bat. 16 urte ditu eta erdi mailako Mekanizazio Teknikari ikasketak egiten dihardu IMHn. Argi zeukan Batxilergora ez zuela joan nahi eta DBH amaitu ondoren Lanbide Heziketa aukeratu zuen. Irakasleekin prestatu zituzten DBHko ikasleekin landu beharreko erronkak, kompetentziak irakasleekin entrenatu zituzten eta astebetez beraiek hartu dute irakasle papera. Bakarrik sartu ziren klasean, eta haiek izan ziren arduradunak. "Orain jakin dugu benetan irakasleek gurekin zer sentitzen duten", esan du Vazquezek. Momentu gogorak pasatu dituzte, alaiak, zailak,

"Parekideekin egindako programek erantzun hobea dutela uste dugu, eta horrela gure ikasleei ere esperientzia berri bat eskaini nahi diegu, zeharkako kompetentziak lantzeko aukera emanez"

- ELI MORENO -

interesgarriak, baina, oro har, esperientzia oso aberasgarria izan dela nabarmendu du: "Orain ulertu dugu irakasleak zergatik irteten diren euren onetik zarataka hasten garenean. Ikasle bezala ez zara konturatzen, baina astebete honen ondoren gehiago enpatizatu dugu irakasleekin, eta orain, hobeto portatzen gara esango nuke".

Astebetean IMHko eskaintza ezagutzeko aukera izan dute. Hiru erronka prestatu zituzten mentoreek, diseinuan, mekatronikan eta tailerrear zer egiten duten irakasteko. Horrez gain, bi enpresa bisitatu zituzten, lan mundua nolakoa den ikusteko eta ikasketak amaitu ondoren zer aurkituko duten jakiteko. Orientazio tailerrak ere egin zituzten, jolasen bidez, ikasle bakoitzak bere burua hobeto ezagutu eta Lanbide Heziketako zein alor gustatuko litzaiokeen gehien



jakiteko. Belaunaldien arteko topaketak ere izan zituzten, eta jubilatu batzuen esperientziak entzun zituzten, enpresa munduko benetako errealitatea jasotzeko. "Esperientzia oso ona izan da, bai guretzat, mentoreontzat, bai eta ikasleentzat ere. Nik uste dut ikasleak ere gustura egon direla".

Azken batean teorian ikasiko dutena praktikan ikusteko aukera eman zaie. "Ikasleak orientatzeko beste modu bat da. Ez da berdina ahoz azaltzea zer ikasiko duten, edo bertatik bertara ikustea. Horrek askoz gehiago motibatzen ditu ikasleak. Egiten ikastea oso interesgarria da".

Eli Morenok nabarmendu du, baita ere, IMHko formazio-zikloek lan munduan barneratzeko maila handia dutela: "Gure moduluak egiten dituzten ikasleak bukatu eta berehala hasten dira lanean, eta hori oso garrantzitsua da. Adineko jendea ere etortzen da batzuetan moduloak egitera, lan egonkor bat topatu ahal izateko". Nuria Vazquez ere oso gustura dabil Lanbide Heziketan, baina aipatu du gaur gaurkoz IMHko zikloetan neska gutxi daudela oraindik. "Gure klasean hiru neska bakarrik gaude, eta hasieran apur bat zaila egin zitzaigun, baina orain, oso gustura gaude. Ondo hartu gaituzte, eta bat gehiago gara". Eli Morenok aipatu du Lanbide Heziketan segregazio horizontala dagoela eta zikloen nolokotasunaren arabera banatzen direla gizonetzkoak eta emakumezkoak, baina gaineratu du gero eta emakume gehiagok ematen dutela izena Lanbide Heziketan.

IKASLEEN ESPERIENTZIA

Hodei Agirre Peñagarikano elgoibartarra izan da Kanpaldi Teknologikoan parte hartu duen ikasleetako bat. 16 urte ditu, eta DBH4. mailan dago; datorren ikasturteari begira, ikasketak aukeratzeko bidegurutzean. Kanpaldi Teknologikoa bide horretan oso argigarria iruditu zaio: "Astebete egin dut IMHn, eta gauza pila bat ikasi ditut. Nahiko argi neukan Lanbide Heziketa aukeratuko nuela datorren urtean, eta Kanpaldi Teknologikoari esker, are argiago daukat erabakia". Orientazio programa egokia dela uste du, eta bereziki, zalantzak argitzeko balio izan diola dio: "Nik zalantza asko neuzkan, nahiko galduta nengoen, eta kanpaldi honek lagundu dit gauzak argitzen. Galdera asko egin ditut eta azalpen argiak eman dizkidate. Nik asko ikasi dut. Mentoreak eurak

*"Zalantza asko neuzkan,
nahiko galduta nengoen, eta
kanpaldi honek lagundu dit gauzak
argitzen. Galdera asko egin ditut eta
azalpen argiak eman dizkidate"*

- HODEI AGIRRE -

ere elgoibartarrak ziren, ezagunak, eta harreman oso ona izan dugu. Esperientzia berria izan da denontzat, eta aberasgarria". Enpresak bertatik bertara ezagutzea ere asko gustatu zaio: "Enpresa batean lan egitea zer den erakutsi digute, eta IMHko ikasle baten esperientzia azaldu digute. Lan mundua praktikan ikustea oso interesgarria iruditu zait". Azkenik, herrian bertan ikastearen garrantzia nabarmendu du: "IMH Elgoibarren bertan edukitzea sekulako abantaila da guretzat, eta gainera, esan digute lan munduan sartzeko aukera handiak eskaintzen dituela". Kanpaldi teknologikoa argigarria izan da, beraz, ikasleentzat, eta datorren urtean berriz egiten bada, DBHko ikasleei parte hartzeko gomendioa egin die Agirrek.



Hodei Agirre, ezkerrekoa.

|| Bihar hasiko da uda denboraldia Mintxetan



Elgoibarko Udalak Mintxetako igerilekuen uda denboraldia luzatzea erabaki du aurten, eta bihar zabalduko dituzte aire libreko igerilekuak. Igerilekuak ixteko epea ere atzeratu egin dute, azken urteetan irailean egin duen eguraldia kontuan hartuta, eta irailaren 29ra arte egongo dira zabalik. Mintxetako igerilekuen denboraldia, beraz, lau hilabetekoa izango da aurten.

Astelehenetik barikura 11:00etatik 20:30era zabalduko dituzte; zapatuetan, domeketan eta jai-egunetan, 10:00etatik 20:30era, eta abuztuan eta irailean, 20:00etan itxiko dituzte. Sarrerak 6 euro balio ditu (18 urtetik beherakoek, 4 euro).



Erabiltzaile kopuruak, urtez urte

2023:	47.400	2013:	53.527
2022:	47.000	2012:	52.000
2021:	41.500	2011:	42.065
2020:	27.000	2010:	48.000
2019:	43.000	2009:	55.056
2018:	42.000	2008:	34.342
2017:	34.000	2007:	15.000
2016:	40.411	2006:	29.000
2015:	45.123	2005:	32.000
2014:	34.522		

Abonuak

- 18 urtetik beherako banakakoa: 72,25 €
- 18 urtetik gorako norbanakoa: 81,25 €
- 60 urtetik gorako erretiratuak: 72,30 €
- 60 urtetik gorako erretiratuaren senitartekoa: 120 €
- Ikasleak: 75,50 €
- Elgoibarko familia: 142,50 €
- Behar bereziak dituzten pertsonak: 68 €
- Elgoibarren bizi ez den norbanakoa: 95,75 €
- Elgoibarren bizi ez den familia: 153,50 €

TRINITATEAK JAI GIROAN

🐑 Barren / Joserra Cabrera

Asteburu betea izan genuen joan zen astean Elgoibarren, Trinitate Jaien harira. Barikuan hasi eta domekara arte egon zen non aukeratu, eta eguraldiak lagun, festa firoa nagusitu zen kalean. Mendaron ere ospatzen dituzte Trinitateak, hain zuzen ere Trinitate elizaren bueltan. Domekan eta astelehenean izan ziren han ekitaldiak. Orriotan batu dugu jaiak eman dutena. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: barren.eus









Kaleko margo lehiaketa

Parte-hartze handia izan zuen zapatu goizean egin zuten Elgoibarko Kaleko Margo Lehiaketak. Elgoibarko herria gai hartuta, herriko hainbat txoko eraman zituzten koadroetara lehiaketan parte hartu zuten 17 artistek, eta maila handiko artelanak sortu zituztela adierazi zuen sari banaketa ekitaldian Egur Arte Tailerreko Paula Herasek. Bizkaiko hiru margolarientzat izan ziren lehen hiru sariak. Leioako Jose Reyes Ramosek irabazi zuen sari nagusia (800 euro); Bilboko Leticia Gasparrek aurkeztutako koadroa saritu zuen epaimahaiak bigarren sariarekin (500 euro) eta Trapagarango margolari Aitor Burgosek jaso zuen hirugarren saria (300 euro). Herritarrentzako saria Ibon Serranok jaso zuen: 150 euro.


Euskal Herriko Harri Zulatze Txapelketa

Sei talde lehiatu ziren Euskal Herriko Harri Zulatze Txapelketan, eta Ortuellako Burdin Gazteak taldeak egin zuen lanik onena. 12 zulo oso egin zituzten eta 48 milimetroko hondarrak. Kabiezes izan zen txapeldunorde 11 zulo oso eginda, eta hirugarren postua Barakaldoko Errekaxo taldearentzat izan zen, 10 zulo oso eta 12 milimetroko lanari esker. Lehia ofizialetik kanpo, Emakumezkoen Harriketarrak taldeko bi kide ere aritu ziren harria zulatzen.

Bizkaiko mendebaldeko zenbait herritan dirau bizirik kirol honek, han egon ziren meategietan duelako jatorria.

Sagardo lehiaketa

Zazpiki Elkarteak Elgoibarko baserrietan eginiko sagardo lehiaketa antolatu zuen zapatarako Lekuederren. Herriko bederatzi baserrik hartu zuten parte eta Amuskategi baserriak irabazi zuen lehiaketa. Armazio baserriak irabazi izan du azken urteetan trinitateetako sagardo lehiaketa; azken biak irabazteaz gainera, sei alditan irabazi du guztira. Antolatzaileek azaldu zutenenez, jende ugari ibili zen Elgoibarko baserrietan ekoiztutako sagardoa dastatzen, eta guztiak gustagarriak zirela nabarmendu zuten. Honako baserriek hartu zuten parte sagardo lehiaketan: Olazarraga, Azkue, Armazio, Amuskategi, Antsolabazterra, Gelasoro, Urrategi, Zulueta Bekoa eta Marigorta.





Ramon Masats argazkilariaren lanak ikusgai izango dira Elgoibarren gaurtik ekainaren 22ra

Ramon Masats (Caldas de Montbuy, Bartzelona, 1931 - Madril, 2024) argazkilari entzutetsuaren atzera begirako erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. 24 argazki izango dira guztira, eta tartean izango dira argazkilari hilberriaren irudirik ezagunenak ere. Erakusketa ekainaren 22a arte bisitatu ahal izango da, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era bitartean.

60ko hamarkadan argazkigintza dokumentalak izan zuen berrikuntzaren ikur nagusitzat dute askok Masats. Haren argazkilari-sena eta bizitzaren muina atzemateko zuen aparteko intuizioa nabarmentzen dute haregandik kultur kritikariek. Bere ibilbide profesionalean, bi etapa zeharo ezberdin bereizten dira: lehen garaiko lana kultuzko hiru liburutan



bildu zuen: *Neutral Corner* (1962), *Los sanfermines* (1963) eta *Viejas historias de Castilla la Vieja* (1964). 70eko hamarkadan argazkiak alde batera laga eta dokumentalak zuzentzeari ekin zion; 80ko hamarkadaren hasieran, ordea, argazkigintzari heldu zion berriro, baina ordutik aurrera, koloretan beti. Beste hogeit bat liburu egin zituen paisaia eta jendeen erretratuekin, baina estilo abstraktuagoan, kolorearekin eta formarekin jolas eginez irudiak ontzeko. Mende berriko lehen urteetan utzi zion argazkiak egiteari, eta orduan hasi zen garrantzi handiko aitortzak jasotzen.

Elgoibar Ikastolaren eguna ospatuko dute bihar, ekainaren 1ean



Bihar, ekainak 1, Ikastolaren eguna ospatuko dute Elgoibarren, ikasturteari jai-giroan bukaera emateko. Goizean goizetik plazatik Ikastolaraino kalejiran irtengo dira trikitilari eta panderojoleekin. Era berean, baina, ikastolan bertan ere ekintza askotarikoak egingo dituzte: tonbola, ikasleentzako jolasak, eskulanak, dantza lehiaketa... Eguna borobiltzeko, eguerdirako Kitziki erromeriaren kontzertua ere lotu dutela aurreratuta dute.

Anarik solasaldi musikatua emango du ekainaren 5ean, Kultur Etxeko Sotoan



Elgoibarko Musikarien Elkarteak Anari Alberdi (Azkoitia, 1979) musikaria ekarriko du Elgoibarrera, ekainaren 5ean. Euskal musikarien bizipenen berri zabaltzea jarri du aurtengo ekintzen helburutzat EMEk, eta asmo horrekin antolatu duen zikloaren baitan, Anari izango da lehenengo gonbidatua. Solasaldi musikatua emango du abeslari azkoitiarrak, Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan. Antolatzaileek jakinarazi dute doan izango dela, eta nahi duen orok parte hartu ahal izango duela Sotoa bete arte. 19:00etan hasiko du solasaldia Anarik.

Unax Ansolak hirugarren egin du Aurreku Txapelketan



Zapatuan, A (7-10 urte) eta B sailetakoen (11-13 urte) Gazte Mailako VI. Aurreku Txapelketa jokatu zuten Erreterian, Niessen kulturgunean, eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Unax Ansola dantzari elgoibartarra hirugarren sailkatu zen, B mailakoetan. Ligan zein finalean, dantzari aparta dela erakutsi du Ansolak. Ligan bezalaxe, finalean ere hirugarren sailkatu zen, eta dantza eskolako irakasleen esanetan, berak dantzatu zituen finaleko bi koreografia zailenak. Finalean, Amasa-Villabona, Zizurkil, Aduna, Legazpi, Lezo, Erreteria, Donostia eta Elgoibarko dantzariak lehiatu ziren. Zapatukoarekin bukatu da aurtengo aurreku txapelketa eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolatik txapelketan parte hartu duten dantzari guztiak zoriondu dituzte emandako mailarengatik.

Zirko tailerra egingo dute Mendaron eguaztenean, Arno Guraso Elkarteak antolatuta

Joandako bi urteetan bezala, aurten ere zirko tailerra antolatu du Arno Guraso Elkarteak herriko haur eta familientzat. Ekainaren 5ean egingo dute, Goñati frontoian, 16:30etik 18:30era bitartean, Xomorro taldearen eskutik.

Arkeologiari eskainitako zikloko bigarren hitzaldia izango dute gaur Mendaron



Euskal Herriko Unibertsitateak, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatu duten hitzaldi-zikloaren barruan, *De Fruitz a Ordizia. Rocas volcánicas y metamórficas usadas por los grupos prehistóricos* izenburuko hitzaldia emango du, gaur iluntzean, Eder Dominguez EHUko ikertzaileak, Mendaron. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etatik aurrera. Joan zen barikuan Aizkoltxoko indusketa lanei buruz Dani Ruizek emandako hitzaldiarekin hasi zuten zikloa.

Brilet taldeak kontzertua emango du gaur, barikua, Malape tabernan



Brilet talde elgoibartarrak kontzertua emango du gaur, hilak 31, Malape tabernan, 19:30ean hasita. 2022ko irailean sortutako taldea da Brilet. Asier Olabarrieta, Jesus Jimenez eta Nerea Gil elgoibartarrek osatutakoa. Pop-rocka eta musika elektronikoa egiten ditu taldeak. Bi kantu berri argitaratu berri dituzte, eta gaur aurkeztuko dute hirugarrena.

'Eukalyptus' antzezlan emango dute Mendaron ekainaren 6an

Nerea Ibarzabal bertsolari eta idazleak eta Beñat Urrutia dantzariak zortzi eskutara idatzitako testu batean oinarritutako lana da *Eukalyptus*, eta Urrutia bera eta Jon Ander Urresti sortzaile bermeoarrak gorpuzten dute testua oholtzan. Hain justu ere, Urrestik Durangoko Azokaren Sormen Beka eskuratu zuen lan honekin 2022an. San Agustin kulturgunean emango dute antzezlan, 19:00etan hasita.

Urrestik esana duenez, eukaliptoaren errelatoa kontatzea da antzezlan honen helburua. "Zerbaitek esaten dit baduela zer esan gutaz. Azken finean gure paisaiaren parte da. Eta hau bilatzeko bide eta forma eszenikoa erabiliko da, antzerkitik eta dantzatik gertu kokatu nahi dudana poetika batean".



Antzezlaneko protagonistak, beraz, eukaliptoak izango dira: "Eukalipto aitzakia hartuta, gure lurren eta bizitzen kudeaketari buruz hausnartu nahi da, zalantzak sortu, nire ustez hau baita artearen funtzioa. Gure inguruarekin erlacionatzeko dugun moduak gure izaeraz, gure garaiaz, gure joerez eta gatazkez hitz egiten duelako". Periferiako gai eta zalantzak jarri ditu plazan Urrestik lan honekin, euren garrantzi politiko eta urgentziak hausnartzeko.



Elgoibarko Udal Musika Banda eta Serafin Zubiri eskutik, ekainaren 7an

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertu berezia emango du ekainaren 7an, Kalegoen plazan, 22:30etik aurrera. Gorka Mujikak zuzenduko du kontzertua, eta aurrerratu dute Serafin Zubiri abeslari nafarrak ere parte hartuko duela, Nino Bravoren omenez.

Txirristaka Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa ekitaldia, eta bertso saio berezia antolatu dituzte Mendaron, hilaren 14rako

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemugaren barruan, *Txirristaka goguan*, *gaurkuak kantuan* saioa antolatu dute In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean, ekainaren 14rako. Bertsoa eta antzerkia uztartuko ditu saioak, eta Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi izango dira protagonistak. Bertsolarietako batek Txirristaka bera interpretatuko du, eta hura ibili izan zen moduan egingo du, altxagailu txiki batera igo eta idatzizko bertsoak kantatuko ditu, bai eta bertsopaperak banatu ere entzuleen artean. Beste bertsolariak, berriz, gaur egundik erantzungo dio Txirristakari. Lan horretan txandaka arituko

dira bi bertsolariak. Azpilgoetan hasiko dute saioa, 19:30ean, eta kalez kale arituko dira kantuan.

Aurrez, baina, 19:00etan, Txirristaka Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute udaletxean. Gaur da lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna, eta interesa duenak gauerdira arteko tartea dauka horretarako. Bi modu daude lanak aurkezteko: udaletxean, eskura, edo Mendaroko Udalaren webgunean eskegi duten galdetegia bete eta hara erantsita bertsoak. Hemen kontsulta daitezke oinarriak, bai eta lanak aurkezteko galdetegia bete ere: mendaro.eus/eu/-/15537744-11.

Oscar Martinentzat epaimahaiaren saria eta publikoarena, C.D. Elgoibarren argazki rallyan

Argazki rallya antolatu du estreinakoz C.D. Elgoibarrek, Ongarriren eta Txankakuaren laguntzarekin, eta trinitate jaien barruan egin zuten sari banaketa ekitaldia, joan zen zapatuan. Oscar Martinen argazki batek (goikoa) irabazi du lehen saria, Txankakua elkarteko komertzioetan gastatzeko 180 euro. Lehiaketako epaimahaiak Raquel Perezek lehiaketara aurkeztutako argazkiari eman dio bigarren saria, 100 euroko erosketa bonua. Publikoaren Saria ere Oscar Martinek aurkeztutako argazkiak jaso du (100 euro). Mintxetan futbolaren inguruan sortzen den giroa, futbolaren mundua, argazkietan jaso behar zuten parte-hartzaileek, joan den maiatzaren 11n egin zuten argazki rallyan.



Eibar taldeko futbolariak gertutik ezagutu dituzte Ikastolako ikasleek



Euskararen Baloia lehiaketan irabazi zuten saria jaso zuten joan zen astean Elgoibar Ikastolako LH 3. mailako ikasleek. Eibar taldearen autobus ofiziala etorri zen Elgoibarrera, ikasleak Arrasaten dagoen Atxabalpeko kirol instalazioetara eramateko, han egiten baititu entrenamenduak Eibar taldeak. Talde armaginaren maskota den Pantxikak ikasleekin batera egin zuten Atxabalperako bidea

autobusean. Jokalarien entrenamendua ikusi ostean, jokalariekin talde argazkia atera zuten gaztetxoek eta jokalariek sinatutako posterrak ere jaso zituzten opari. Horixe baitzen lehen saria irabazteagatik jaso zuten saria. Denboraldiko une erabakigarrian murgilduta dauden arren, jokalariek eta Joseba Etxeberria entrenatzaileak tarte bat hartu zuten Elgoibartik joandako umeei harrera egiteko.

Bera Bera laga du June Loidik, eta Xixoneko La Calzada taldean jokatu du aurrerantzean

Es kubaloian egiten diharduen bidean erabaki garrantzitsua hartu du June Loidik. Super Amara Bera Bera taldea laga eta Xixoneko La Calzada taldearen eskaintza onartu du. Sanloko harrobian hezitako jokalaria 2021-22 denboraldian joan zen Donostiako talde indartsura, Barakaldoko Zuazo taldean hiru denboraldi egin eta gero. Bera Beran ere hiru denboraldi osatu ditu. 24 ditu Loidik eta protagonismo handiagoa eduki nahi du kantzian, eta Donostian azkenaldian eduki ez dituen minutu horiek bilatu nahi ditu La Calzadan. Halaxe azaldu du Bera Berak: "Loidik leku garrantzitsua izan du Super Amara Bera Beran, gehienetan defentsako erdialdean arituz. Halere, taldean bere papera ezagutu arren, Loidik minutuak pilatu nahi ditu Guerreras Iberdrola Ligako beste leku batean". Donostiako kirol taldeak zorterik onena eta arrakasta opatu dizkio agur mezuan.



Loidik 93 partida jokatu ditu Bera Berarekin, eta orain arte, 114 gol sartu ditu. Kopuru hori handitzeko aukera du oraindik, Ligako finala jokatzeko ari baitira Elxeren aurka (eguztenezan jokatu zuten joanekoa Donostian eta 30-26 irabazi zuten Bera Berak). Hala, titulu batekin agur esateko aukera izango du Loidik. Bera Berarekin egin duen ibilbidean bost titulu eskuratu ditu: Liga bat (20-21), bi Kopa (23 eta 24) eta bi Superkopa (2022 eta 2023an).

Elgoibarko Lagun Taldeko Danel Garaizabalek kiroltasun erakustaldia eman du



Elgoibarko Lagun Taldeko Danel Garaizabalek (argazkian ezkerrean) bigarren egin zuen zapatuan Oartzunen jokatu zuten BTT lasterketan, baina podiumera igo izana bera baino garrantzitsuagoa da erakutsi zuen kiroltasuna. Oiarzungo Urkabe mendiko zirkuitoan jokatu zuten lasterketa infantil mailako txirrindulariek, bihamunean kadeteetatik gorakoek Euskadiko XC Txapelketa jokatu zuten zirkuito berean. Dorletako Ama txirrindularitza eskolako Aratz Larrañaga zihoan lasterketa buruan, baina azkeneko itzulian katea irten zitzaion, eta hori ikustean, bigarren zihoan Danel Garaizabal elgoibartarra gelditu egin zen helmugatik metro gutxitara, lagunari pasatzen uzteko. Hala, Aratz Larrañagak egin zuen lehenengo, Danel Garaizabalek bigarren eta Beñat Priegok hirugarren. Bestalde, Azkoitin jokatu zuten errepideko lasterketan, klubeko hiru txirrindulari igo ziren podiumera: Iker Barrueta, June Iraolagoitia eta Irati Ansola elgoibartarra.

Angel Ibarluzea bolari elgoibartarra Gipuzkoako txapeldun, seigarrenkoz

Sekulako palmaresa osatzen segitzen du Angel Ibarluzea bolari elgoibartarrak. Bergarako San Soxepe bolatokian jokatu zuten, zapatuan, Gipuzkoako hiru txirlo bola joko txapelketaren 53. edizioko azken jardunaldia, hamargarrena. 60 bolarik hartu zuten parte eta Unai Loiolak irabazi zuen tiraldia, 5 txirlo botata. Saillkapen nagusiari dagokionez, lehia ezin estuagoa eduki zuten Garikoitz Rodriguezek (Asola Berri) eta Angel Ibarluzeak (San Migel A). Hiru txirloko aldearekin ailegatu zen Rodriguez azken tiraldira, baina berdintzea lortu zuen Ibarluzeak. Berdinketa hausteko tiraldian elgoibartarra gailendu zen. Bolari elgoibartarrak motel hasi zuen txapelketa, eta azken jardunaldietan bizkortu da, jardunaldiz jardunaldi saillkapenean gora eginez, 40 txirlo botata lehen postua eskuratu arte.

Seigarren aldiz irabazi du Gipuzkoako txapela. Iaz hamargarren postuan sailkatu zen Ibarluzea txapelketa honetan eta bosgarren postuan 2022an. Euskal Herriko txapelketa lau alditan irabazi du. Garikoitz Rodriguez eibartarra izan da txapeldunorde (40 txirlo) eta hainbat astetan saillkapeneko liderra izan zen Santos Muñoz (Florea), hirugarrena, 34 txirlorakin. Unai



Loiola elgoibartarra sailkatu da laugarren (33 txirlo) eta Boni Plaza bosgarren, 33 txirlorakin.

Mintxetako argiztapena berritzeko lanak ekainaren 17an hasiko dituzte

LED teknologiadun argiztapen berria ipiniko dute Mintxeta kirolgunean, futbol zelaian eta atletismo pistan. Electricidad Cuadra enpresak irabazi du lanak egiteko lehiaketa publikoa, 56.178,35 euroko aurrekontuarekin (BEZ gabe), eta lanok ekainaren 17an hasita aurreikusten du Udalak. Lanak burutzeko epea gehienez lau hilabetekoa izango da. Simetrikoki jarritako lau argi dorretan ipiniko dituzte argi berriak: 1500W potentzia nominaleko 20 LED proiektore erregular. Udaletik jakinarazi dutenez, LED teknologiadun argiztapen berria jarrita argindarraren kostuan %77 inguru



aurreztea espero dute. Argiak kontrolatzeko eta erregulatzeko sistema ere berrituko dute. "DALI driverekin komunikatzeko sistema bat" izango du, eta horrek aukera emango du argi-baldintzak kirol-jardueren behar espezifikoei egokitzeko.

Belen Azpeitia atleta omendu dute Mintxetan, hari eskainitako irudia bistaratuta



Mugertza krosa sei aldiz irabazi eta emakumezkoen atletismoan aitzindaria izan zen Belen Azpeitia Mendioroz (Donostia, 1952-2005) omendu zuten barikuan Mintxetan, Juan Mugertzaren eta Mamo Wolderen irudiak dauden lekuan hari eskainitako irudia gehituta. Belen Azpeitiaren alaba Izaskun Urbietak bistaratu zuen irudia, hunkituta, Maddi Arrieta eta June Fernandez musikariek ETSren *Zurekin batera* abestiaren bertsioa jotzen ari ziren bitartean. Julian Azkue Villar argazkilaria ateratako agazkia

da Mintxetan jarri duten Azpeitiarena, eta hil aurretik atera zioten azken argazkietako bat da. Mamo Wolderen argazkia ere Azkuek ateratakoa da, eta Juan Mugertzarena, berriz, Indalecio Ojanguren argazkilaria eibartarrarena da.

Ekitaldian, kirolean ere berdintasuna sustatzearen eta erreferenteak bistaratzearren garrantzia azpimarratu zuen Maialen Gurrutxaga alkateak, eta esker on berbak izan zituen Belen Azpeitiak, bai Udalarentzat eta baita Mintxeta krosaren antolatzaileentzat ere (👏 Asier Orbea).



LANA**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzia daukat.
643 708 616

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka.
Titulu soziosanitarioa daukat.
624 828 670

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Astelehenetik igandera lan egiteko prest. **641 756 213**

Gizon arduratsua, lanerako gogotsu. Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan.
632 708 954

Adineko gizonetzakoak zaintzeko prest nago. Mudantza lanak ere egiten ditut.
647 554 386

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
643 505 827

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
Orduka. Gauzez ere bai, etxean zein ospitalean. Erizaina naiz.
Titulu soziosanitarioa daukat eta esperientzia. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka.
Asteburuetan lan egiteko prest nago, bai eta ospitalean gauak pasatzeko ere. **611 306 391**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, astelehenetik ostiralera eta asteburuetan goizez edo gauzez. Titulu soziosanitarioa daukat. **631 020 169**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
Orduka, gauzez ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **600 082 254**

Uztailetik aurrera umeak zaintzeko prest nago. **688 713 497**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
631 584 186

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
631 521 351

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia daukat.
647 554 386

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia daukat.
643 505 827

Adinekoak zaintzen edo etxeko garbiketak egiten egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Berehala hasteko prest.
638 857 100

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
631 892 149

Neska euskalduna uztaileko goizetan umeak zaintzeko prest.
615 707 138



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos
Euzkoako Enpleu Administrazioen Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean bada lokal bat telebista-instalaziorako sarbiderik ez duena eta jabeak ez du gastu horretan parte hartzen. Jabeak, baina, antena paraboliko bat jarri nahi du estalkian. Jakin nahi nuke komunitateak baimenik eman behar duen horretarako edo lokalak instalazio hori egiteko eskubidea duen.

Jabekideek zerbitzu horiek eskuratzeko eskubidea dutela dio legeak, eta azpiegituraren erabilera partekatua bermatzen du. Ildo horretan, jabetza horizontaleko erregimeneko eraikin baten jabekideek eskubidea dute telekomunikazio-zerbitzuetara jotzeko instalazio komunaren bidez, teknikoki egokitu badaiteke, edo bestela, sistema indibidualen bidez. Beraz, ezin da zalantzan jarri baimena behar duen ala ez, ezta zenbateko gehiengo behar duen ere. Jabe horrek lege emandako eskubidea dauka, eta komunitateak ezin du inolako akordioarik, estatutu-araurik edo barne-araubideko erregelamendurik erabili horren kontra. Antena instalatzeko, jabeak pauso jakin batzuk eman behar ditu: Komunitateko presidenteari jakinarazi beharko dio, eta, eraikinean horretarako azpiegitura bat baldin badago, azpiegitura hori erabili beharko du.

Ondorioa: eraikinean azpiegiturarik ez badago, edo jabekideak eskuratu nahi duten zerbitzua emateko gai ez bada, edo beste bat instalatzen ez bada, eta lehendik zegoena egokitzen ez bada, komunikatzaileak egokitzapena egin ahal izango du dagozkion telekomunikazio-zerbitzuak jaso ahal izateko.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Anie**, zure lehenengo urtebetetzean! Muxu handi bat.



Zorionak, **Leire**, asteartean 6 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez!



Zorionak, **Peio!** Ostegunian 8 urte beteko dituzulako. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta bereziki Danelen partetik.



Zorionak, **Ian**, 9 urte bete zenituelako! Segi horrelako mutil jatorra izaten, muxuak familia guztiaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

..... **BARRE**neko harpidedunentzako oharra
.....

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



31 BARIKUA

18:00 Bertso pilota txapelketako saioa, Mendaron, frontoian.

18:30 Ramon Masats argazkilari kataluniarraren argazki erakusketa. Ekainaren 22ra arte egongo da ikusgai.

19:00 EH Bilduren ekitaldi politikoa. Europako Legebiltzarrerako Hauteskunde kanpainaren barruan, Xabi Luke eta Nerea Kortajarena izango dira Elgoibarren. Maalako parkean.

19:00 'De Fruitz a Ordizia. Rocas volcánicas y metamórficas usadas por los grupos prehistóricos' izenburuko hitzaldia, Mendaron, EHUK eta Suharri elkarteak antolatuta, Mendaroko Udalaren laguntzarekin. Udalbatza aretoan.

19:30 Brilet taldearen kontzertua, Malape tabernan.

1 ZAPATUA

10:30 Ikastolaren Eguna. Goizean zehar jolasak eta beste hainbat ekitaldi egingo dituzte. Elgoibar Ikastolan.

10:00 Bigarren eskuko azoka. Elgoibarko Gaztelekuak antolatuta, Kalegoen plazan.

11:00 Mintxetako igerilekuen irekiera.

2 DOMEKA

17:00 Jokin Altuna eta Unai Lasoren arteko buruz buruko pilota txapelketako finala ikusteko pantaila jarriko dute Mendaroko udaletxean.

3 ASTELEHENA

16:00 Etxez etxeko zaintza lanei buruzko aholkularitza. Merlin Medinarekin, Lilan. Txanda hartzeko: 688 640 983

5 EGUAZTENA

16:30 Zirko tailerra, Mendaron. Arno Guraso elkarteak antolatuta, Goñati frontoian. Xomorro taldeak emango du.

19:00 Anari abeslariarekin solasaldia. EME elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Doan.

7 BARIKUA

19:00 Arkeologiari buruzko hitzaldia. EHUko unibertsitateak, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta, udaletxeko Udalbatza aretoan.

19:00 Ameikutz musika eskolako perkusio irakasleen ikasturte amaierako jaialdia. San Agustin kulturgunean.

20:30 'Mendaro dantzan' emanaldia. Kaxa taldekoen eskutik, Goñati frontoian.

22:30 Kontzertua: Udal Musika Banda, Serafin Zubirirekin, Nino Bravo abeslariaren omenez. Kalegoen plazan.



Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:



Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

IKASTOLAREN EGUNA

Ekainak 1, zapatua



10:30 - 11:00 Kalejira plazatik buruhandiek.

11:00 - 12:15 HH, LH 1-2, LH 3-4, LH 5-6 eta DBH 1-2 jolasak eta txikienetzako tailerrak: jolasen txokoa, eskulanak eta aurpegi margotzea.

12:15 - 12:30 Sari banaketak.

12:30-13:30 Dantza lehiaketa.

13:30-14:30 Kontzertua: Kitziki erromeria.

Egunean zehar: Ikasleen lanen erakusketa eta Tonbola.

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MAIATZA

31 BARIKUA

Barrenetxea

EKAINA

1 ZAPATUA

■ Fernandez

■ Barrenetxea

2 DOMEKA

■ Fernandez

3 ASTELEHENA

Yudego

4 MARTITZENA

■ Oruesagasti

5 EGUAZTENA

Barrenetxea

6 EGUENA

■ Ibañez

7 BARIKUA

Garitaonandia

2024 urte guztian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Eta, Debabarrenean zer?

Palestinarekiko Elkartasun Eguna, Deban.
Ekainak 1, zapatua, 11:00etan.

Herriko fragile ezberdinen artean antolatu dute biharko egitaraua. Bertsoak, dantzak, kontzertuak.. izango dira eta Palestinako ikurrak erosteko mahaia ere jarriko dute. Eguna Palestinako herriari eskainitako habanera bat kantatuz amaituko dute. 11:00etan hasiko dituzte ekintzak eta 14:30ak aldera bukatuko dituzte. Ordu horretan talde argazkia ere aterako dute.

Egitaraua osoa ikusteko: berriketan.eus



Olaso kalea, 15, 20870 Elgoibar

660 912 542

www.elgokar.com

[instagram.com/elgokar.auto garbiketak](https://www.instagram.com/elgokar.auto garbiketak)



Udako denboraldia!
Autoa garbitzea laga gure esku!

Kronista polifazetikoa

Anjel Ugarteburu



Eusebio Mugertza, *Mendaro Txirristaka* (1874-1955). Bertso-paperak izan ziren eta dira XIX. eta XX. mendearen lehen partean gure herrietan kirol, politika zein erlijio arloan izandako gertaera zein pertsonaia ospetsu askoren berri ematen duten informazio iturri nagusiak. Sasoi horretako prentsa urriak (batez ere euskaraz) baino hobeto hurbiltzen gaituzte herritar xehearen pentsaera eta sentimenduetara.

Antonio Zavala (sic) jesuitak han eta hemen egindako bilketa lan eskergaitzari zor diogu gaur egun *Auspoa* liburu sailean gozatu dezakegun altxor preziatua: 150 liburuki inguru. Nik banituen lehendik ale batzuk (Txirrita, Xenpelar, Imaz ...) baina Txomin Mujika adiskideak eskuzabal eman zidan sail osoa eta badut hor hainbat irakur eta kantagai eder, tartean Txirristakarenak. Neurri (zortziko eta hamarreko txiki eta handi, neurri berezi, koplak...) eta doinu asko erabili zituen, jendearentzat ezagunak ziurrenik, kantuan parte hartzeko aukera emateko, edozein elizpe, plaza edo azoka gunetan.

Bertso idatzi horietan agiri diren hitz, esaera, metafora eta erreferentziek sasoi hartako giroan murgiltzen gaituzte guztiz, doinu horiei esker haiekin batera kantatzen ari garela sentitzeraino. Izan ere, **Txirristakak**, beste bertsolari askok bezala, gizarte zerbitzu bat bete zuen bere kabuz zein enkarguz idatzitako paper horiekin. Berak esaten du Mendaroko San Agustin komentuko kapilauaren monagilo izan zela mutikotan: *"Ura zen Pedro Migel Urruzuno jauna / bertsuetan sermoia egiten zuana"* Harekiko harremana izan zuen, ziurrenik, bertsozaletasunaren lehen urratsa.



Nik bazkal aurreko zizka-mizkek egiten dutena egingo dut hemen: apetitoa zabaldu. Besterik ezin da orrialde batean. *"Quisiera ser alcalde Donostiyakua"* edo *"marinel ausart harek, hijo de Motrico, atravesó a nado el Atlántico"* eta antzeko beste batzuk idatzita utzi zizkigunak gai asko erabili eta landu zituen bere bizitza luzean, han eta hemen bertso-paperak saldu, zabaldu eta jendearekin batera kantatuz. Merezitako oroitzapena Mendarok bere seme bereziari eskaintzen diona haren jaiotzaren 150. urteurrenean.

Afrikako gatazkaren erreferentzia egiten du (Abdelkrin). Karlista eta liberalen arteko gerra ere aipatzen du. Kubako gerran ere ibili zen, bertso honetan idatzi zuenez: *"Ama negarrez, aita errietan / erotua nitzan galdera // ta nik erantzun arrokeriyan / nua Kubako gerrara // Gosiak eta zorriak ugari /errukarria ibilera // ez nintzan mutil bikaina etorri / Kilimon errekaldera"*. Urte haietako kronika jakingarria jaso daiteke bertso paperetan.

Hizkuntza-baliabideen artean, sarri erabiltzen zituen esaera bitxi hauek hautatu ditut: *"Oker ibili nahi degunontzat alperrik bide zuzenak"*, *"Kilkerra maiatzian bezin berritsua"*, *"Danok leialak ez garelako atiak daukate giltza"*, *"Orbela udatzenian egoaziak ibiltzen duan bezela"*, *"Aren arrautzak ziran gorringo bikuak"*, *"Gainera etxea Gemikan, ez duana teilaturikan"*, *"Berrogei ontza luze dutela mingaina"*, *"Aurriak erakusten du nola dantzatu atzia"*.

Horra tentazioa, gazteren batek sokari helduta lan sakonago eta zahatzago bat egin nahi balu.



Jesus Maria Muguruza Cendoya

"Agarretxiki"

2024ko maiatzaren 28an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



*Ascen
Nuñez Gañan*

1969-2009

Beti biziko zarete gure bihotzetan.

Etxekoak



*Gabriela
Gañan Molinero*

1933-2024



III. URTEURRENA

Enrique Eguren

2021eko ekainaren 4an hil zen, 94 urte zituela.


Beti gurekin/zurekin


Etxekoak





Eskertzak eta urteurrenak

Barren astekarian eta barren.eus webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**

 **688 769 657**

 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**

2024KO SANBARTOLOMEETA KO
UMEEN ETA NERABEEN

EGUNETAKO
KAMISETEN

IRUDIEN LEHIAKETETAN
PARTE HARTU NAHI?
LH1-LH6 ETA DBH

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK:

- Elgoibarren eskolaratutako LH1-LH6 bitarteko hurrek eta DBHko ikasleek aurkeztu dezakete irudia.
- Umeen Eguna edo Nerabeen Eguna irudikatzen duen irudia izan behar da.
- Irudiak "trazua" bakarrik izan dezake, betegarririk gabe.
- Irudia helbide honetara bidali edo ekarri:
aisia@elgoibarkoizarra.eus / Aita Agirre Kulturgunea 3, 3 ezkerre.
- Irudiarekin batera, izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia idatzi.

AURKEZTEKO EPEA: EKAINAK 7

INFORMAZIO GEHIAGO: www.elgoibarkoizarra.eus / 943 741 746